



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Pasaia, 2021eko azaroaren 24a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela **"Moluskuetan biotoxinak (lipofilikak, ASP eta PSP) aztertzeko zerbitzua azpikontratatzea"**.

Euskal Autonomi Erkidegoan indarrean dagoen legediaren arabera, molusku bibalbo bizen ekoizpenaren kontrol eta jarraipean egiteko biotoxina analisiak egitea beharrezkoa da hori bermatuko duten prozedurekin.

Baldintza hauek beteko dituen laguntza-zerbitzu hornitzaile bat hautatzea da helburu:

- Molusku bibalboetan biotoxinak aztertzeta, indarrean dagoen legediaren araberako metodoak erabiliz. Zehaztapenak legediaren araberako bermearekin egingo dira.
- Lizitazio honetan jasotako lanak EBko legediak eskatzen dituen biotoxinen analisiak dira:
 - Acido domoico (ASP)
 - PSP biotoxinak
 - Itsas biotoxina lipofilikak
- Laborategira bidaliko den analisi-matrizea normalean muskuilu bizia hoztua izango da eta ez da baztertzeko ostra edo biera laginen bat bidaltzea ere. Asteko lagin-tasa batetik hirura bitartean izango da nahiz eta aste batzuetan posible den laginik ez bidaltzea. Normalean, lagin bakoitza egun ezberdinetan bidaliko da. Orokorrean, hiru analito-taldeak (ASP, PSP eta lipofilikak) neurtuko dira, nahiz eta udaberrian biotoxina lipofilikak bakarrik neur daitezkeen eta beste batzuetan berriz, beste talderen bat bakarrik beharko litzaken.



2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Proiektua **24 hilabeteko (2 urte)** epe maximoan gauzatuko da, kontratuaren sinatze datatik hasita. Epe hau 12 hilabetez (1 urte) luza daitekeelarik automatikoki, baldin eta alde batek aurkako erabakia beste alderdiari idatziz adierazten ez badio, hasierako epe muga baino hilabate lehenago.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskaintzak baloratuko dira (ikus Baldintza Teknikoen 9.atala). Eskaintza ekonomikoak taula honetako "eskaintza ekonomikoa" zutabeak betez aurkeztu beharko dira:

Kontzeptua	Unitateko prezio maximoa	Lagin kopurua (gutxi gorabeherakoa)	Eskeintza Ekonomikoa (unitateko prezioa)	Azpitotalaren kalkulua (eskeinitako unitate prezio bider lagin kopurua)
ASP, PSP eta Lipofilika analisiak (muskulu)	350	50		
ASP, PSP eta lipofilika analisiak (ostra edo biera)	350	5		
Lipofilika analisiak (muskulu)	160	10		
PSP analisiak (muskulu)	160	5		



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

ASP analisiak (muskuilu)	52	5		
Eskeintza Ekonomikoa (kalkulo totala)				
Eskeintza Ekonomikoaren puntuazio totala				50

Informazio gisa, eskaintza ekonomikoa prestatzeko gure zerbitzua honako izan liteke (hornitzaileak proposamena idazteko bakarrik balio du, izan ere lagin kopurua zein izango ez da jakinekoa).

- 50 muskuilu lagin: ASP, PSP eta lipofilika analisiekin.
- 5 ostra edo bieira: ASP, PSP eta lipofilika analisiekin.
- 10 muskuilu lagin: lipofilika analisiekin.
- 5 muskuilu lagin: PSP analisiekin.
- 5 muskuilu lagin: ASP analisiekin.

Fakturazioa zerbitzua amaitzean egingo da, eta faktura jaulki eta 60 egunera ordainduko da.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doitasun teknikoa	%45
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Alaitz Lizasori aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak alizaso@azti.es helbide elektronikoa eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2021eko abenduaren 9ko 12:00ak arte**.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:

AZTI

German Rodriguez

Telf. 34 667174488

Mail: grodriguez@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Edozein gai gehigarri kontsultatu ahal izango da www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratazioaren barne Araudian.
- Baldintza teknikoek eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.
Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak,



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

- Proposamenaren kudeaketa eta eraginkortasuna hobetzen lagunduko duten aldaerak edo alternatibak eskaintzetan sartzea positiboki baloratuko da.

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lop@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeko eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

1. Laborategiek molusku bibalboen kalitatea kontrolatzeko planei ezartzen zaien legedia betez egin behar dituzte zehaztapenak.
2. Ezinbestekotzat hartuko da aipatutako analitketan akreditatuta egotea.
3. Laborategiek, behin-behineko emaitzak AZTIk emandako posta elektronikoko zerrenda batera bidaliko dute.
4. Laborategiek, azken emaitzen jakinarazpena AZTIk emandako posta elektronikoko zerrenda batera bidaliko dute.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Komunikazio prozesua urtero berrikusiko da eta bi aldeek aldaketak proposatuko dituzte zerbitzuaren zati horren hobekuntzari zuzenduta. AZTIren esku egongo delarik aldaketa horiek hurrengo urtetan barneratzea edo ez.

Aukeratutako entitateak egindako lanaren konfidentzialtasuna bermatuko du.

Proposamenak ebaluatzeko garaian, plegu honetan eskatzen diren gutxieneko (1, 2, 3 eta 4 baldintzak) baldintzen hobekuntzak kontutan hartuko dira. Hobekuntzak gehienez 45 puntura arte baloratuko dira. Ondoren, AZTIrentzat interes berezia duten puntuak zerrendatzen dira:

- 33 puntu: behin-behineko emaitzak emateko epea
- 12 puntu: azken emaitzak emateko epea

Lizitatuzaileari eskatzen zaio eskaintza teknikoan, xehetasunez eta argi bereiztea baldintza minimoak eta hobekuntzak. Horretarako, hobekuntzei buruzko atal zehatz bat idaztea eskatzen da.

Plegu honetan lizitatuzaileak, eskatzen diren gutxieneko baldintzen onarpena eta zein bide, mekanismo jartzen dituen AZTIren eskura zehaztu beharko du. Era berean, eskaintza kontuan hartzeko, proposatutako hobekuntzak betetzeko erabilgarri dauden giza baliabideak eta baliabide teknikoak zehaztu beharko dira.

AZTIk aukera du jasotako proposamenei buruzko argibideak edo informazio osagarria eskatzeko. Bestalde, jasotako proposamenei balorazioetan berdinketa gertatuz gero, azken erabakia hartzeko unean eskaintzaren kalitatea eta kaudimen teknikoa (azken hiru urteetan deskribatutakoen antzeko lanen zerrenda, exekuzio onaren ziurtagiriarekin) kontutan hartuko dira.